




OROZKO



ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Zilarrean arbola berdea, eta honen enborrean bi otso baltz igerolari, ahoan harrapakina dabela; arbolaren adaburutik gurutze gorri bat agertzen da.

DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

En campo de plata, árbol de sinople con dos lobos cebados y pasantes de sable al tronco, y una cruz de gules asomando en la copa.

AITAMEN HISTORIKOA

Bizkaiko Jaurerriko bailara eta merindadea. Lau eleizatetan banatuta egoan: Olarte, Urigoiti eta Zaloak eleizate bat osotzen eben eta, beste hirurak, San Juan Orozkokoa, Murueta eta Albizu-Elexaga ziran. Hasiera baten Bizkaiko Jaurerrikoa zan bailara, baina 973an Garcí Sánchez Sancho Lópezen semearen jabetzakoa izatera pasatu zan, eta ordutik aurrera Aialako jaunaren jabetzekoa izango zan.

XVI. mendearen azkenerantz barrero be jaurerriari lotzen saiatu ziran, baina ez eben lortu. Azken baten, zortzi mendetan aialatarren menpe egon ostean, Bizkaiko Jaurerrian sartu ziran. Idatzia Bilbon egin zan, 1785eko apirilaren 2an, eta merindade titulua emon eutsien. Gernikako Batzar Nagusietan azkenengo eserlekua emon eutsien, eta, jaurerriko gainontzeko merindadeak lez, honek be berba egiteko eta botua emoteko eskubidea eukan. Ordurarte bailara zuzentzeko bost fidel erregidore, alkate bat eta sindiko prokuradore bat eukazan; alkatea bailara guztiak izendatzen eban, eta sindikoa, ostera, aldian eleizate batek aukeratzen eban. Batzarrak San Joango udaletxean egiten ziran, eta batzarron buru alkatea eta sindikoa izaten ziran. Bailarako Batzar Nagusiak egiteko Larrazabalgo zelaian biltzen ziran, antxina Orozko oinetxea egon zan tokitik hur.

RESEÑA HISTÓRICA

Valle y merindad perteneciente al Señorío de Bizkaia. Comprendía cuatro anteiglesias: San Juan de Orozko, Murueta, Albizu-Elexaga, Olarte, Urigoiti y Zaloa, estas tres últimas feligresías componían una sola anteiglesia.

Originariamente el valle formó parte del Señorío de Bizkaia, pero el año 973 paso a patrimonio de Garcí Sánchez, hijo de Sancho López, permaneciendo desde entonces bajo la dependencia de los señores de Aiala.

A fines del siglo XVI existió un intento de incorporarse al Señorío sin consecuencias, hasta que por fin y tras ocho siglos bajo la órbita de los Aiala pudo desvincularse de éstos y

anexionarse al Señorío de Bizkaia con categoría de merindad, por escritura otorgada en

Bilbao el 2 de abril de 1785. En las Juntas Generales le fue concedido el último asiento en Gernika, con su voz y voto como una merindad más del Señorío. Hasta entonces dispuso para su gobierno de cinco fieles regidores, que se reunían en el ayuntamiento de San Juan, presididos por el alcalde ordinario nombrado por el valle y por el síndico procurador, elegido rotativamente en cada anteiglesia. Las Juntas Generales del valle se celebraban en el campo de Larrazabal, cerca de donde estuvo ubicada la antigua casa solar de Orozko.

